



Eklektizismoa

Sarrera

Eklektizismoa arte-estilo mistoa da, elementuak hainbat iturri eta estilotatik hartzen dituen. Terminoak estiloen konbinazioa deskribatzen du, hau da, historian zehar egon diren estilo ezberdinetatik hartzen dituela elementuak, hala nola arkitektura, pintura eta arte grafiko eta dekoratiboetatik.

Artean nahiz filosofian, eklektizismoa mugimendu, eskola, estilo eta pentsaera ezberdineko elementuak era malguan bateratzeko joerari deitzen zaio. Joera horri jarraiki jokatzen duten pertsonak eta horretan oinarrituta burutu diren lanak eklektikoak direla esaten da.

Testuinguruari dagokionez, eklektizismoa 1860tik 1920ra bitarte garatu zen. Garai horretan hiriak hazkunde etengabe batean murgildu ziren eta, ondorioz, hiri askotako harresiak bota edo moldatzearekin batera, gora egin zuen premia berriei erantzungo zieten eraikin berrien eskaerak ere.

Arkitekturak hirietan izan zuen esku-hartzearen arrazoiak hiru faktoretan laburbil daitezke: gaixotasunen saihestea, kale estuetan barrena ezkutatzeko mugimendu iraultzaileak murriztea eta garapen industrialaren erraztuko zuten zirkulazio-azpiegitura berriak irekitzea. Hirigintza berriak berdeguneak, zirkulazio logikoa, orientazioa eta bizi-kalitatea zaindu behar zituen. XIX. mendeko bigarren erdialdean hirietako biztanleen kopuruak oso azkar egin zuen gora, eta agintariak hirien egitura bere osotasunean birplanteatzeko beharra izan zuten. Urbanismoak itzelezko garrantzia hartu zuen. Birplanteamendu honek zenbait elementu izan zituen kontuan:

- Produkzio ekonomikorako eredu berriak: serie-produkzioko materialak eta industriaren beharrak
- Garraioen garapena (tranbiak, trena, tren-geltokiak, zubiak, portuak)
- Komunikazioak errazteko modua
- Osasun-kontrola eta higiena: estolderia-sareak
- Segurtasuna eta kaleen kontrola (segurtasun-indarrak)
- Hilerriak, parkeak eta lorategiak egiteko espazioak

Euskal Herriaren kasuan, premia horiek Industria Iraultzaren ondorioekin lotu behar dira, industrializazioa XIX. mendearen bigarren erdian erabat zabaldua baitzen euskal lurretan zehar. Horrez gainera, garai horretan nagusitu zitzaion liberalismoa absolutismoari (Euskal Herrian, Bigarren Karlistaldiarekin) eta, hala, erregimen parlamentarioak izan ziren Europako mapa politiko berriaren protagonistak; baina horrekin beste mugimendu mota batzuk sortu ziren, erabat baldintzatuko zutenak politika eta gizartea orokorrean: langile mugimenduak, eta baita ideologia politiko berri bat ere, nazionalismoa hain zuzen ere.

Arte eklektikoa

Agintean zegoen burgesiari, indarrean zegoen arte neoklasikoaren estiloa zurruna, lehorra eta serioegia iruditzen zitzaion eta, horregatik, sentiberatasun berri baten bila hasi zen, askatasun irrika eta lortutako guztiagatik garaipen sentipena adierazteko xedez. Sortu zen gustu artistiko berri horri erromantizismo deitu zitzaion, babesten zituen balioak hauek baitziren: sentimendua, pasioa, indibidualismoa eta askatasun nahia, arrazoiaren eta arauen gainetik.

Pinturan eta eskulturan sentikortasun berria hainbat obratan landu bazen ere, estilo erromantikoa, historikoa eta konstunbrista jorratuz, arkitekturan ez zen erromantikotzat har daitekeen estilorik gauzatu. Arkitekturan, iraganeko estilo artistiko ezberdinak berreskuratzeko nahia izan zen sentikortasun erromantikoaren ezaugarri nagusia, eta estilo horri eklektizismoa esan zitzaien.

Eklektizismoa eta Euskal Herria

Euskal Herrian ere, Europako beste leku batzuetan bezala, garai horretan pinturan eta eskulturan mamitu zen arteari erromantikoa esaten zaio. Arkitekturan aldiz, Europako arte eklektikoa euskal arkitektoek ondo ulertu zuten eta eraikuntza adierazgarriak diseinatu zituzten gure lurretan. Horrez gainera, sarreran aipatu dugun ideologia nazionalista berriaren haritik eratorrita, bertako arkitektura bat ere nabarmendu zen, estilo neoeuskalduna garatuz, hain zuzen ere.

Arkitektura eklektikoa

Erantzun azkar eta desberdinen premiak eta garatzen ari zen gizarte industrial berriaren beharrek eta gustuek eragin zuten XIX. mendeko eklektizismo arkitektonikoa. Arkitektura neoklasikoari eusteaz gain, espiritu erromantikoarekin lotura duten iraganeko beste zenbait joera ere berpiztu zituen. Iraganeko arkitekturetara jo zuten eta, arkitektoak haien artean egokiena aukeratu behar izaten zuten, eraikuntzaren funtzio eta garaiko gustuei begiratuta. Arkitektura desberdinak eta kontrakoak ere bizi izan ziren hirietan eta horrexegatik deitu izan zaio eklektizismo historizista. Edozein modutan ere, ez ziren iragana berreskuratzera mugatu, aurreragoko arkitekturan hain garrantzitsuak izan ziren material berriak erabiltzen ere hasi ziren, besteak beste, burdina. Iraganeko arkitektura motak imitatzea zen kontua, eta arkitektoak horien artean egokiena aukeratu behar zuten, eraikuntzaren funtzioa edo adierazgarritasuna kontuan hartuta.

XIX. mendean zehar historizismo desberdinak bizi izan ziren elkarrekin: neoklasikoa, neomudejarra, neoerromantikoa, neoerrenazentista eta, denen artean garrantzitsuena, neogotikoa. Estilo hori erromantikoek bultzatu zuten batez ere. Beren tradizio nazionalen erroak Erdi Aroan bilatu zituztenez, neogotikoa iruditu zitzaizen tradizio horiek aldarrikatzeko egokiena, beraien gustu emozionalen eta ezaugarrien adierazle aproposena zelakoan.

XIX. mende osoan zehar, Europan estilo eklektikoa izan zen nagusi eta hiri askotan aurki daitezke arkitektura-estilo nahasi horren adibideak. Mendearen erdialdetik estiloen nahasketak egin ziren eta herrialde bakoitzean ezaugarri bereziak izan zituen.

Europa mailan lanik esanguratsuenetarikoa Parisko Opera izan zen. Hiriko burgesiaren erakustoki izaten zen opera eta horrexegatik eskailera handi batzuen gainean eginda dago, etorbide zabal baten amaieran. Antzerki-esparrua nahiko txikia da eta hainbat saloi eta areto ditu.

Neogotikoaren teoriko eta propagandista garrantzitsuenen artean, C. Barry-rekin Londresko Parlamentu Britainiarra egin zuten Pugin ingelesa eta Viollet-le-Duc frantsesa daude.

Mendearen bigarren erdialdean, arkitektura-estilo nagusiak historizista eta eklektikoa izaten segitu bazuen ere, gizarte industrialak sortu zituen beharrei aurre egiteko irtenbiderik ez zuten eman, eta planteamendu berriak hasi ziren garatzen. Arazoei irtenbideak emateko modu berria aurkitu behar zuten arkitekturak, eta material berriak erabiltzen hasi ziren.

Arkitektura eklektikoa Euskal Herrian

XIX. mendeko azken urteetako ekonomia-gorakada ikusgarriaren ondorioz hasi zen bertako burgesia, gero eta boteretsuagoa zena, Europako beste lurraldeetan aldarrikatzen ari zen arkitektura mota eskatzen, haien estatus berria agerian uzten zuena.

Espainiako moldeen eraginez forma mudejar eta musulmanak gehitu ziren barne aretoen dekorazioan batez ere. Erruz ugaltu ziren forma eklektikoak euskal hiriburu- eta zabalbiltzaileko eraikinetan.

Euskal Herriko eklektikotasunean erabilitako arkitektura-formarik garrantzitsuenak garaian garaiko modaren menpe zeuden, baina baita eraikuntzek bete beharreko funtzioen menpe ere.

--- **Arkitektura erlijiosa.** Erabilitako tipologia gehienek erromaniko eta gotiko estiloa berreskuratzen zituzten. Erromanikotik eta gotikotik, gurutze latindarreko oinplanoa izan zen formarik erabiliena, beso luzeenean hiru edo lau habearte zituena, eta gurutzeria nagusia, kupularik gabeko hegiko gangak eta kaperez osatutako girola zituena. Kanpoko itxurari dagokionez, eliza gehienek gotikotik hartutako estetika aukeratu zuten.

Tipologia horretan Euskal Herrian gauzatu zen egitasmorik garrantzitsuenak Gasteizko Katedral Berria izan zen. Julian Apraiz eta Javier Luquek garai gotikoko frantziar katedralen ereduari jarraituz, Katedral Berria gurutze latindar oinplanoz, zazpi kapera absidedun girola eta kriptaz diseinatu izan zen. Gipuzkoari dagokionez, bi egitasmorik garrantzitsuenak hiriburuan eraiki ziren eta hirigunearen zabalgunearan eraikitzen ziren auzo berriekin zerikusia izan zuten. Manuel Etxaberen Artzain Onaren katedralak eta Groseko San Inazio eliza.

Bizkaian berriz, Bilbon Luis Landetxok egindako San Francisco de Asis dugu adibide garrantzitsuenak.

--- **Arkitektura zibila.** Ez dira elizak eta jauregiak garai honetan eraikitzen diren tipologia bakarrik. Gizarte berriak eta haren premiak era guztietako eraikinak eskatzen zituen, eta horren ondorioz, tipologia zabal bat garatu zen. Aldi honetako etxebizitzetan apaingarri gutxiago ageri bada ere, badira bi elementu oso erabiliak eta gaur egungo hirietan estilo eklektikoa sinbolizatzen dutenak: ganbarak eta galeriak.

Italiar eraginpeko hiri-jauregi motako ereduak izan zen orokorrean nagusitu zena, nahiz eta frantziar arkitekturaren elementu ugari ere barneratu ziren. Bolumen erregularreko eraikinak dira eta fatxadaren konposizioari dagokionez behealdean sendotasun itxura ematen zaio, solairurik garrantzitsuenean elementu apaingarririk gehienak biltzen diren bitartean.

Arabian zein Nafarroan, aldi honetan zehar egindako arkitektura zibil eklektikoari dagozkion ereduak ugariak dira. Iruñean, estilo mudejarrean egindako Iruñaldeko Mankomunitatearen egoitza aipatu daiteke eta Gasteizi dagokionez estilo errenazentistan Pantaleon Iradierrek diseinatutako Bigarren Hezkuntzako Probintzia-Institutua.

Bizkaiko arkitekturaren nabarmentzekoa da Bilboko Udaletxea, Joaquin Rucoba arkitektoak diseinatu eta elementu barrokoak, arabiarak, eta errenazentistak erabili zituen bertan eta Arriaga antzokia, Parisko Opera eredu hartuta eraikin neobarrokoa eraikin zutena. Gipuzkoan berriz, garai honetako dugu Alderdi Ederreko kasinoak, gaur egun Udaletxearen egoitzan bihurtu eta Victoria Eugenia antzokia Errenazimentuko eraikin baten kutsua duena. Atariko fatxadak korintiar zutabe ederrak ditu, sarrerako hiru ateetan eta baita ere solairu nagusiko balkoien artean.

Estilo neoeuskalduna

Euskal Herrian arkitektura herrikoira itzultzeko modak bere gertakari berezia XX. mendearen hasieran izan zuen, neoeuskalduna deritzon estilo baten agerpenarekin batera. Estilo honen oinarria euskal baserria da, eraikuntza tipologia hau berrinterpretatu eta familia bakarreko etxera bideratzen duelarik. Horrela, Lapurdiko baserriaren elementurik funtsezkoenen bilketatik abiatuta (teilatu eta aurrealdeetako disimetriak, bao handiak eta egonleku zabalak, helburu apaingarridun aurrealdeetako margodun egur-estrabeek egindako jokoak, etxearen oinaldean harriaren erabilera), Edmond Durandean, Henri Godbargen, Jean Longerey eta William Marcel arkitekto frantsesak izan ziren Lapurdiko itsasertzeko turismo-lekuetan estilo hori garatu zuten lehendabizikoak. Geroztik, gainerako Euskal Herri guztian zehar zabaldu zen, Pedro Guimon, Amann, Smith, Rucabado, Atxukarro, Bastida eta beste euskal arkitekto batzuk egindako lanari esker, bai familia bakarreko etxeen arkitekturari bai aduana-eraikinetan edota trenbidearen geltokiak bezalako eraikuntza tipologiako eraikuntzetan ere.

Burdinazko arkitektura

Garai berriei egokitzuz ari ziren hiriak garatzen. Hirigintza koherenteagoa ez ezik, nahitaezkoa zen behar berriei erantzun zien arkitektura diseinatzea ere. Geltokiak, zubiak, azokak edota lantegiak egiteko eskariak gora egin zuen urte gutxian. Erdiko zutaberik gabeko eraikuntzak altxatzea, garaiera handiko eraikinak ahalik eta euskarri gutxien erabiliz egitea edo barrualdeak argitzeko leiho ikaragarriak irekitzea zaila zen. Horretarako soluzio ausartak behar ziren, azkarrak eta merkeak, eta iraganeko estiloetan oinarritutako arkitekturak ez zuten halako irtenbiderik ematen. Soluzio moduan material berriak erabiltzen hasi ziren, besteak beste, burdina eta beira. Arkitektura mota hori ingeniariak egin zuten batez ere, arkitekto gehienek iraganeko estiloei atxikita jarraitzen zutelako.

XVIII. mendearen azken hamarkadetan egin ziren lehenengo burdinazko eraikinak, nahiz eta XIX. mendearen lehen erdialdera arte ez ziren orokortu, orduan hasi baitziren antolatzen Erakusketa Unibertsalak. Industriaren aurrerapenaren adierazgarri izan ziren erakusketa horiek. Haietarako egin ziren eraikinen artean aipatzekoak dira J. Paxtonek egindako Londresko Crystal Palace eta Parisko Eiffel Dorrea, A.G. Eiffel ingeniariak eginak.

Euskal Herrian bada estilo horretan egindako eraikinik: Portugaleteko Zubi Esekia (gaur egun Bizkaia zubia bezala ezaguna dena), A. Palacio arkitektoak eginak, eta Ormaiztegiako Zubi Handia, A. Lavalley ingeniariarena. Lan horiekin teknika berriak erabiltzen hasi zen arkitektura eta baita balio estetiko berriak bilatzen ere.

Eraikuntza-elementuak

- Material berriak erabiltzen hasten dira arkitektura elementuetan, hala nola, burdina eta beira.
- Arkitektura zibilak monumentaltasuna bilatzen du, burgesiaren boterea erakutsi nahian.
- Arkitektura erlijiosoan oinplano erabiliena erromanikotik eta gotikotik berreskuratutako gurutze latindarra izan zen, beso luzeenean 3 edo 4 habearte zituena.
- Tipologia aldetik elizak eta jauregiak ez ezik, etxebizitzak ere nabarmentzen hasi ziren.
- Etxebizitzetan arkitektura-elementu erabiliena ganbarak eta galeriak izan ziren.
- Dekorazioari ematen zaio garrantzia: zutabe mistoak, atlanteak, kariatideak, idi-begiak, zutarri atxikiak, ghirlandak, mentsulak eta frontoi kurbatuak
- Elementu klasikoei ezaugarri exotikoak gehitzen zaizkie, hala nola Antzinako Egiptotik eta Asiatik berreskuratutakoak, baina baita arte mudejar eta musulmanetik hartutakoak ere. Batez ere barne-aretoen dekorazioan erabili ziren.
- Urbanismoari dagokionez, komunikazio-azpiegiturak, orientazioa eta bizi-kalitatea kontuan hartzen hasi ziren.

Eraikin-galeria

Eraikinaren izena	Bilboko udaletxea. Bilbo (Bizkaia)
Estiloa / Garaia	Eklektizismoa, XIX. mendea
Eraikinaren funtzioa	Arkitektura zibila
Deskribapena	<p>Udaletxea 1884tik 1892ra bitartean eraiki zuten. Estilo eklektikoan oinarritzen da eta, besteak beste, elementu barrokoak, arabiarak, eta errenazentistak erabili zituen Joaquin Rucoba arkitektoak.</p> <p>Eraikinaren zati esanguratsuena fatxada nagusia da. Hiru gorputzetan banatuta dago: erdiko oso handia da eta alboetakoek aurrera egiten dute. Sarrerako eskailera eta terraza, balastradaz hornituta, bigarren solairuko arkutaria eta frontoia, eta azkenik goiko aldean dagoen dorre altua dira elementu arkitektoniko aipagarrienak.</p> <p>Funtzionaltasuna gehi edertasuna eta monumentaltasuna erakutsi nahi zituen arkitektoak.</p>
Arkitektoa	Joaquin Rucoba

Eraikinaren izena	Andre Maria Sortzez Garbiaren katedrala / Katedral Berria. Gasteiz (Araba)
Estiloa / Garaia	Eklektizismoa, XX. mendea
Eraikinaren funtzioa	Arkitektura erlijiosoa
Deskribapena	<p>Andre Maria Sortzez Garbiaren katedralari Gasteizko Katedral Berria esaten diote. Neogotiko estilokoa da, XX. mendean eraikia. Javier Luque eta Julian Apraiz arkitektoek burutu zuten proiektua. Gurutze latindarreko oinplanta dauka, eta burualdean zazpi kaperaz osatutako girola zabala. Arazo ekonomikoak zirela medio, bi fasetan egin zuten lana. 1907tik 1914ra bitartean, lan esanguratsuenak egin zituzten, adibidez kripta, non eskultura, beirateak eta arkitekturaren batasun estetikoak finkatzen dituzten. Bertan ikus ditzakegu eskultura-lan hoberenak ere, gai profanoen ingurukoak alegia. Beste elementu aipagarri bat beirateak dira. Denak beira koloreztatu eta beruneztatuak dira.</p>
Arkitektoa	Javier Luque / Julian Apraiz

Eraikinaren izena	Victoria Eugenia Antzokia (Donostia)
Estiloa / Garaia	Eklektizismoa, XX. mendea
Eraikinaren funtzioa	Arkitektura zibila
Deskribapena	Eraikinaren oinplanoak laukizuzenaren forma dauka. Fatxadak hareharriz eginak daude eta errenazimenduko kutsua dute. Hormetako hutsuneak simetrikoki agertzen dira eta fatxada nagusian hiru zatiko konposizioa osatuz tartekatzen dira. Atariko fatxadak korintiar estiloko zutabe ederrak ditu, sarrerako hiru ateetan eta baita ere solairu nagusiko balkoien artean. Fatxada honetan sei eskultura daude: Munibe (Peñafloridako kondea), Arriaga, Hilarion Eslava, Gaiarre, Joaquin Gaztanbide eta Jose Juan Santesteban Iraola pertsonaien irudiak alegia.
Arkitektoa	Francisco de Urcola

Eraikinaren izena	Sorkundezko Amen Txaleta. Iruña (Nafarroa)
Estiloa / Garaia	Eklektizismoa, XIX. mendea
Eraikinaren funtzioa	Arkitektura zibila
Deskribapena	Estilo eklektikoko etxe hau Florencio Ansoleagak diseinatu zuen. Bi solairukoa da eta teilatupe moduko errematea du. Materialari dagokionez, adreilu gorria eta harria konbinatzen dira eraikinean. Hiru fatxada ditu, alaka moduan eraikita dagoenak beste biak elkartzen ditu. Erdiko fatxadan ate nagusia irekitzen da eta goian balkoi bat harrizko balaustradarekin. Balkoien eta leihoen inguruan apaindurazko osagaiak ugari dira.
Arkitektoa	Florencio Ansoleaga

Eraikinaren izena	Arriaga antzokia. Bilbo (Bizkaia)
Estiloa / Garaia	Eklektizismoa, XIX. mendea
Eraikinaren funtzioa	Arkitektura zibila
Deskribapena	Bilboko Arriaga antzokia Joaquin Rucoba arkitektoaren eraikin neobarrokoa da. Ibaiaren eta Alde Zaharraren artean kokatuta dago. Oinplano trapezoidala du. Erdiko zatiak forma kurbo-konbexoak erakusten ditu eta bi alboetan dorre poligonal bat dago. Fatxada nagusiak barruko antolamendua islatzen du. Hiru solairutan antolatuta dago: sarrera, fustea, bertan antzokia bera dagoelarik, eta azkenik ganbara, erlojuarekin. Rucoba arkitektoak Pariseko Opera antzokian lortu zuen inspirazioa, eta dekorazioan ere nabarmena da eragina eragina: mentsulak, pilastrak, eskulturak...
Arkitektoa	Joaquín Rucoba

Eraikinaren izena	Iruñeko eskualdeko Erkidegoaren egoitza (Iruña)
Estiloa / Garaia	Eklektizismoa, XIX. mendea
Eraikinaren funtzioa	Arkitektura zibila
Deskribapena	Eraikin honetan adreiluak garrantzi handia hartzen du, bai elementu eraikitzaile moduan bai apaingarri moduan ere. Bi fatxadetan behatokiak eta balkoiak kokatzen dira. Atearen multzoa nabarmenagoa da: irekidura goiburua dauka, eta berau tradizio mudejarreko erronbo sare batez apainduta dago. Apaingarri mudejar horiek fatxadetan errepikatzen dira. Iruñeko arkitekturako mudejar estilo berriko eraikin bakarra da.
Arkitektoa	Angel Goicoechea

Eraikinaren izena	Udaletxe Berria. Donostia (Gipuzkoa)
Estiloa / Garaia	Eklektizismoa, XIX. mendea
Eraikinaren funtzioa	Arkitektura zibila
Deskribapena	Eraikin monumental hau Luis Aladren eta Adolfo Morales de los Rios arkitektoen proiektua izan zen. Jatorriz hiriko Kasinoa zen, 1887. urtean inauguratua. 1947. urtetik aurrera Donostiako udaletxea bihurtu zen, berrikuntza lanak egin eta gero. Eraikinaren oinplanoa T formakoa da eta fatxada nagusia erabat simetrikoa. Hiru gorputzetan bananduta dago, eta era berean erdian kokatzen den gorputza hiru zatitan antolatuta dago bi dorreen bitartez. Bai hutsarteak, bai arkuak simetrikoki banatzen dira. Hirunaka erdiko gorputzean eta seinaka alboetan dauden gorputzetan. Terraza handi batek eraikina eta Alderdi Eder lorategia lotzen ditu.
Arkitektoa	Luis Aladren / Adolfo Morales de los Rios